

Legazpiko Agenda 21eko Foroa

2013ko ekainaren 6ko tailerraren Akta

Legazpiko Kultur Etxean egindako tailerra, 18:30etik 20:00etara.



Taldea, gaur

Manuel Fernández (Nagusilan) • Arantxa Arizmendi (Legazpiko Udaleko zinegotzia) • Montse Vallejo • Floren Gutiérrez • Juan Pedro Agirre • Oscar Valbuena (Legazpiko Udaleko zinegotzia) • Igor Rojo • Juncal Fernández • Feli Núñez • Juan Karlos Agirre • Ane Mendinueta (Legazpiko Udaleko arkitektoa) • Inma Hernández (Legazpiko Udaleko Iraunkortasun saileko eta Agenda 21eko teknikaria) • Kepa Urzelai (Legazpiko alkatea) • Igor Urrate (Legazpiko Udaleko zinegotzia) • Iciar Montejo eta Zorione Aierbe, Prometea.

Eskerrik asko –berriz ere!- gure gonbidapena onartu duzuelako eta Kultur Etxera etorri zaretelako. Gaur leku berria hartu nahi izan dugu Legazpiko Agenda 21eko Foroa egiteko. Baina, batik bat, eskerrik asko “barrutik” hausnarketa egin eta lan egin duzuelako.

Hasierako oharra

“Berriekin” emango diogu hasiera gaurko tailerrari.

1. Ibaialde erakusketa Kultur Etxean.

Irailaren 27an hasita eta urriaren 10era arte, Eusko Jaurlaritzak bultzatu duen erakusketa ikusi ahal izango da. Erakusketaren helburua ibaien ekosistemen ingurumen-balioak ezagutzera ematea eta horiek gordetzearen garrantzia azpimarratzea da.



2. Joan den irailaren 21ean, Erreka Egunaren hamargarren edizioa ospatu genuen Legazpin.

Egun “zirrargarria”. Legazpiar askok bizi izan zuten esperientzia hori –erreka garbitzea, hamaiketakoa eta jasotakoarena erakustea- eta gonbidatu bereziak izan ziren, elkarteak, herriko talde desberdinak, ...



Eta, ondoren, bete-betean heldu diogu gaurko tailerrerako proposatutako gaiari.

Gaia: Legazpiko ondare industrial

• Koka gaitezen

Deialdi-gutunean aurreratu genuen zerbait baina airean utzi genuen ...



Zertan dute antza Legazpik, Portugaletek eta Gesaltza Añanak?

Erantzuna: **estatu mailan interes nabarmeneko 100 elementuen artean dagoen ondare industrial** (beste batzuekin batera, Gesaltza Añanako gatzaga eta Portugaleteko zubi esekia).

Ondare hori...

- ... ia ezezaguna da eta udalerrian ez da oso baloratua.
- ... eta, era berean, Legazpiko Udala gaur egun egiten ari den katalogatutako ondarea babesteko eta gordetzeko planaren barruan ondare hori ezagutu duten adituak harrituta geratu dira.

Horrela adierazi digute Ane Mendinueta¹, Beatriz Herrerasesek², Nerea Aranbarrik³ eta Josean Medinak⁴, Legazpik duen balio horren gainean bakoitzak izan duen esperientziatik abiatuta.

Ane Mendinueta

- Aspaldi izan nuen intuizioa: Legazpin bada zerbait berezia.
- Herriaren paisaia eraikin industrialek eta San Ignazio, Arantzazu eta San Juan auzoek eta Urtatzako lehen faseko eraikinek osatzen dute. Herriak duen altzorra da baina ez da horrela hartzen.



¹ Legazpiko Udaleko arkitektoa.

² Industria-arkeologian aditua eta Ondare Industrialaren eta Obra publikoaren Euskal Elkarteko kidea.

³ Arkitektoa, hirigintzan aditua. International Planning and Sustainable Development masterraren barruan "re-emergence of small post-industrial cities" izeneko ikerketan ezagutu du Legazpiko kasua.

⁴ Arkitektoa eta Legazpiko Udalak bultzatu duen "Legazpin katalogatutako Ondarea babesteko eta gordetzeko Plan berezia" izeneko proiektua lantzen ari den lantaldeko zuzendaria.

“

Beatriz Herreras

- Patricio Echeverria enpresak 40. eta 50. hamarkadetan eraiki zituen auzoak kalitate handikoak dira.
Antzeko etxebizitzetan exijitzen diren gutxieneko parametroak gainditzen dituzte: argia, azalera eta inguruko berdeguneak.
- Egungo Legazpi fase historiko desberdinen batuketa da. Trikuharriak, saroiak, burdinolak, ubideak, baserriak, artzainen txabolak, errotak, jauregiak, etxeak, ermitak, zubiak, tren-geltokiak, industria-nabeak,...; horiek denek, orainaldian irakurri eta interpretatu behar den puzzle handi bat osatzen dute.

Josean Medina

- Hunkitu egin gaituena ez da Legazpiko ohiko ondare industrial; zirrara sorrarazi diguna ondare hori berezia, desberdina, bakarra dela ikustea izan da.
Eta berezitasun hori ez da dituen eraikinengatik, haiekin marrazten den paisaiarengatik baizik. Osotasun horrek egiten du Legazpi desberdin eta herriaren langile eta ekintzaile izaera islatzen du.

Nerea Aranbarri

- Legazpi pribilegiatua da, balio handiko ondarea duelako: ondare historikoa, kulturala eta industrial.
Ondare historiko aipagarria da Legazpikoa, herriari izaera ematen diona eta fisikoki herri aparta egiten duena. Horrezaz gain, ondare kulturala du, ikusten eta ukitzen ez dena: tradizioak, bertako kultura. Baliabide hori ez da ahaztu edo alboratu herriaren etorkizuna antolatzean.
Baina, batik bat, ondare industrial da Legazpi berezia egiten duena eta hori argi geratu da Patricio Echeverria enpresaren industria-gunea Ondare Industrial babesteko Plan Nazionalen Estatuko 100 gune industrialen nabarmenen artean sartu denean.

”

• Aurrean dugun erronka

Beraz, gure udalerritari eta guri, legazpiarroi, planteatzen zaigun erronka hau da:

Nola eman dezakegu ezagutzera eta nola balioetsi gure ondare industrial?
Komunikazioari dagokionez, zer egin dezakegu?

• Foroak egin dezakeena

Erronka hori izanik, Legazpiko Agenda 21eko Foroaren laguntzarekin kontatu nahi izan dugu.

Nola?

Anek, Cristinak, Joseanek eta Nereak egindako ekarpenak entzun eta irakurri ondoren, ondoko galderak egin dizkiogu taldeari:



Iraganean –“**atzo-**“, ¿nola bizi zenuten ondare industrial hori?

Nola bizi duzue **gaur**?

Nola nahi zenukete **etorkizunean** bizi?

Erantzunekin bizipenak, argudioak, sentimenduak,... jasotzea bilatzen dugu. Horrek hurrengo urratsa zein izan daitekeen pentsatzera eramango gaitu eta ondare hori ezagutzera nola eman dezakegun erabaki ahal izango dugu.

Gaurko tailerrean “**iraganean**” **sakontzeko** astia izan dugu. Segidan, taldean azaldu diren eta bildu diren ideiak, bizipenak, sentimenduak,... jaso ditugu.

Nola bizi zenuen “**iraganean**” Legazpiko ondare industrialia?

Estetikari dagokionez:

- Ez zen itsusia eta ez zen polita.
- Batzuk herriaren sarrera itsusia ikusten genuen.

Garai hartan Legazpi hainbat elementu nagusik osatzen zuten:

- “Fabrika”: bizitza eta udalerriko portaera sozialak markatu zuen elementua. Horrek bazuen aurrekari garrantzitsua, aurretik zegoen ondarea (burdinolak....). Gainera, haren indarrak –monopolioa zen- garai hartan egon zitezkeen ekimen partikularrak frenatu zituen.
- “Kalea”, edo hirigunea: herriaren erdialdea eta Kale Nagusia, batik bat.
- “Auzoa”, garai hartan bizi-kalitatearekin lotzen zen, etxebizitzak onak zirelako eta espazio publiko ederra zegoelako. Eta horietatik “hoberena” San Ignazio omen zen.
- “Zelaiak”, herriaren eta landa-eremuaren artean zegoena.
- “Fabrikaren tutuak”, eragin handia zuen jendearen erritmoan eta kaleko bizitzan.





Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Nola bizi zenuen “iraganean” Legazpiko ondare industrialak?

Hiri-eremuaren eta eraikinen kalitateari dagokionez:

- Patrizioak egindako etxebizitzak erosoak ziren; auzoak ondo zeuden.
- Hainbat pertsonen iritziz, “aurrerapena” izan zen eta aurreratuago geunden inguruko udalerriekin alderatuta.

Laburtuz, herria Patrizio zen eta hori pertsona bakoitzaren ikuspegitik –eskertzea, beldurra, gaitzespena-...

Kanpotik (beste udalerrietatik) nola ikusten gintuzten galderari dagokionez, iritzi desberdinak zeuden:

- Batzuk: “fabrika itsusi hori duen herria” edo “zein gaizki Legazpikoa izatea”;
- Beste batzuk: Patrizioarekiko eta Legazpiko bizi-baldintzekiko miwesmena.

Aldaketa 70. hamarkadan etorri zen:

- Neurririk gabeko hazkundearekin, denak elkar ezagutzen genuen “txikia eta bildua” zen herria izatetik hurbiltasun hori galtzera iritsi ginen.

Saiatu arren, agian ideia horiek guztiek ez dute gaur taldeak partekatu duen debataren sakontasuna islatzen. “Barru barrutik” eman da gaurko eztabaida.

• Datorren azaroaren 7an... jarraituko dugu

Gaurko hausnarketak jarraipena merezi du. “Iraganean” eta gaurko bizimoduan sakontzea komeni da, etorkizunean Legazpiren nortasun hori nola bizi nahi dugun zehazteko.

Lehenengo urratsa bere horretan utziko dugu eta datorren azaroaren 7an jarraituko dugu. Zuen zain egongo gara, denon artean “altxor” hau nola zabal dezakegun aztertzeke.

Eskerrik asko gaur taldearekin partekatu duzuen guztiarengatik.

Mila esker guztioi!